

OÑATIKO UDALAREN ETA GIZABIDEA FUNDAZIOA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Bildurik

Oñatin, **2025ko uztailaren 8an**,

Alde Batetik, **IZARO ELORZA ARREGUI anderea**, 15396342-G NAN zk.duna, Oñatiko Foru enparantzan z/g lan egiten duena, Udal Korporazioaren izenean, Alkate izanik.

Bestetik, **ARITZ OTXANDIANO CAMPO jauna**, 78896883Y NANz, Arrasateko Zarugalde 30ean lan egiten duena, Gizabide Fundazioaren izenean, bertako Zuzendari izanik.

Adierazten dute

I.- Oñatiko Udalak indarrean dagoen legeriaren arabera eta, bereziki, 7/1985 Legeak (apirilaren 2koa, Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen) bere 25. artikuluan eta Euskadiko Toki Erankundeei buruzko 2/2016 Legearen 17 art. 20) atalean diotenaren arabera, hainbat eskumen ditu ingurumen jardueri dagokienean.

II.- Gizabidea Fundazioa D2030 proiektua aurrera eramateko baliabide material, pertsonal eta eskarmentua duen elkarte bakarra da.

III.- Oñatiko Udala D2030 Egitasmoa sustatzeko eragileen arteko lankidetzak hitzarmenaren sinatzaileetako bat dela

IV.- Oñatiko Udalak aitortzen du Gizabidea Fundazioa lan oparoa egiten ari dela D2030 egitasmoaren inguruan.

V.- Oñatiko Udalak eta Gizabidea Fundazioak elkarriketak izan dituztela, euren arteko lankidetzak iraunkorra ezartzeko eta bermatzeko helburuarekin, eta horretan aritzeko borondatea adierazten dute.

VI.- Hitzarmenak, Gizabidea Fundazioa Elkartea eta Udalaren arteko lankidetzak-esparrua zehaztu eta araupetzea du helburu Oñatiko Udalerrian elkarte horrek garatzen dituen jarduerak sustatzeko.

Klausulak

NORTASUN JURIDIKOA. Bi aldeek aitortzen dute Gizabidea Fundazioa elkartearen zuzenbide pribatuko elkarte dela, Eusko Legebiltzarrak onartutako Elkarkei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa eta Oñatiko Udaleko aginte organoekin inolako menpekotasunik ez duela ezta lan harremanik ere.

APLIKAGARRIA DEN ARAUDIA

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra ezarritakoa.
- 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 8ko 4/2005 Legea (24.2 artikulua xedatzen duenez, "euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei").
- Emakumeen eta Gizonen arteko benetako berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauak.
- Oñatiko Udaleko Dirulaguntzen 2020-2022 Plan Estrategikoa.
- 2009ko Oñatiko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.
- D2030 Egitasmoa sustatzeko eragileen arteko lankidetzak hitzarmena

XEDEA ETA HELBURUAK

- Debagoiena 2030 Garapen Iraunkorrerako Sarea erakunde, eragile eta herritar desberdinez osatutako lankidetzaren sare irekia da, eta Debagoienak dituen askotariko erronka komunitarioei elkarrekin erantzuna emateko helburuarekin sortu da.

2025 URTEKO HELBURUAK:

1. Azken urteetan egindako saretzeari eta eremuetan egindako lanari esker 2025. urtean dimentsio eta konplexutasun esanguratsua duten lankidetzazko proiektuak garatzea.

2. Jendartean XXI. mendeko erronken inguruko ahalduntzea sustatzea, narratiba eraldatzaileak eta jokaera aldaketak bultzatzeko

3. D2030 ekimenaren gobernantza eta lidergoaren ikuspegitik, eragile publikoen rola indartzea, lidergotza Mankomunitateak har dezan bidea urratuz.

OÑATIKO UDALAREN BETEBEHARRAK

Oñatiko Udalak Gizabidea Fundazioa Elkarteak antolatzen dituen jardueretan parte hartuko du, ahal duen eta egokien, horretarako dirulaguntza bat bideratu du **2025ko** Aurrekontuetan.

- OÑATIKO UDALAREN LAGUNTZA EKONOMIKOA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28. artikuluan, aukera ematen die Udalei zuzeneko dirulaguntzak ematea. Halaber, 22. artikulua ezartzen du (22.2c atala), Udalak eman ditzakela zuzeneko dirulaguntzak.

Horrela bada, Oñatiko Udalak, aipaturiko jarduerak garatzeko diruatala jarri **zuen 2025ko** Aurrekontuan: 5442 kodeduna. Debagoiena 2030 proiekturaren dirulaguntza: 20.000,00 €.

Nolanahi ere, proiektuak bideragarriak izan daitezzen, beste erakunde publikoei ere dirulaguntza eskatuko die, hala badagokio (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza...). Hala ere, beste finantziabide batzuk lortuz gero, ezingo da inoiz izan gain-finantzaketarik Udalaren dirulaguntzarekin.

GIZABIDEA FUNDAZIOA ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

- Hitzarmen honetan aipatutako helburuak betetzea, proiektua betearaztea, eta hitzarmen hau egiteko arrazoi den jokabideari eustea.
- Oñatiko Udalak egin beharreko zuzitze-jarduerak onartzea: baita eskuduntza duten beste kontrol organoek (estatukoak nahiz erkidegokoek) egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa ematea.
- Oñatiko Udalarik jakinaraztea beste dirulaguntza, laguntza, edo diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baldin badira. Jakinarazi behar da horien berri izan eta berehala, eta nolanahi ere, fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezzen.
- Gizabidea Fundazioa Elkarteak Oñatiko Udalaren dirulaguntza jasotzen dutela adieraziko du bere argitalpen eta adierazpenetan.
- Jasotako fondoak itzultzea, gain-finantziarioa gertatuko balitz.
- Behar beste baimen lortzea, beren jarduerak garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

GIZABIDEA FUNDAZIOA ELKARTEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- URTEKO PROIEKTOA: Dirulaguntza eskatzearekin batera, Gizabidea Fundazioa Elkartearen ordezkariak edo erantzuleak elkartearen urteko proiektua aurkeztuko du eta horren aurrekontua:
 - Helburuak, jarduerak eta ekintzak, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak, material baliabideak eta abar.
 - Gastuen eta sarreraren aurrekontua aurkeztuko da. Gastuak egiteko epea (faktura sortzea eta fakturaren eguna), oro har, urte naturala bukatzen denean amaituko da.

- Hitzarmen honetan eta Udal aurrekontuetan ezarritako diru-laguntzen onuraduna izatea debekatzen duen arrazoirik ez dagoela egiaztatu beharko du elkarteak, erantzukizuneko adierazpenaren bidez.
- ZERGA BETEBEHARRAK: Gizabidea Fundazioa Elkarteak bermatu egin beharko du zerga obligazioak betetzen dituela: Gizarte Segurantzarekin, Oñatiko Udalarekin eta Foru Ogasunarekin (edo Estatuko Ogasunarekin hala badagokio).
- URTEKO MEMORIA. Urte bukaerarako, Gizabidea Fundazioa Elkarteak, emandako laguntza egiaztatzeke, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:
 - Gastuak eta diru sarrerak;
 - Jatorrizko fakturak edo egiaztatutako kopiak;
 - Lortutako emaitzen balorazio bat;
 - Urteko dokumentazioa grafiko eta ikus-entzunezkoen zerrenda dokumentazio grafikoa eta ikus-entzunezkoa.
 - Dokumentazio hori aurkeztu ezean, Oñatiko Udalak bukatutzat emango du hitzarmena eta espedientea hasiko du, ofizioz, ordainduta dauden aurrerakinak itzuli daitezzen.

Aipatutako dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu gabe dagoenean, 15 eguneko epea emango zaio elkarteari, Udalak egindako errekerimendua jakinarazten den hurrengo egunetik hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko. Emandako epea igarotakoan, horiek zuzendu gabe baleude, hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango du Oñatiko Udalak.

ORDAINKETA.

Oñatiko Udalak urteko diru-laguntza honela emango dio Gizabidea Fundazioa Elkarteari: Burututako jardueren memoria jaso eta onartu ondoren.

HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen honek sinatzen den egunetik urtebeteko iraupena izango du.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Jarduera interes publikokoa izanik, herritarrengan edo barne antolakuntzan eragina duten ahozko zein idatzizko adierazpen orok Oñatiko Udalaren hizkuntza irizpideak bete beharko ditu.

- Kartelak, abisuak, oharak, publizitatea...euskaraz egingo dira; baita interneteko argitalpenak ere (blog, webgune eta sare sozialeko profiletan).
- Hizkuntza bat baino gehiago erabili behar den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna tamainan, kolorean eta kokapenean.
- Udalarekiko harremanak euskaraz gauzatuko dira.
- Beste elkarte edo eragileekiko harremanetan ere euskara erabiliko da, eta ezinbestez hizkuntza bat baino gehiago erabili behar bada, euskarari emango zaio lehentasuna tamainan, kolorean eta kokapenean.

Irizpide horren aplikazioak ezingo du, inolaz ere, herritarren hizkuntz eskubideak urratu. Oñatiko Udalak ikuskatu ahal izango du aurreko baldintzaren betetze maila. Zehaztutakoak betetzen ez badira, elkarteak hizkuntzen normalizaziorako plangintza adostu beharko du Oñatiko Udalarekin. Horretarako Euskara Zerbitzuaren laguntza izango dute.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Gizabidea Fundazioa Elkarteak emakumeen eta gizonen berdintasunerako, indarrean dagoen legeria bete beharko du. Oñatiko Udalak ez dio inolako laguntzarik emango elkarteak kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten bada.

HITZARMENA HAUSTEA

Bi aldetatik edozeinek utzi dezake bertan behera hitzarmen hau bere kabuz. Hala gertatuz gero, hasitako ekintzak bukatzea bermatuko da. Hitzarmena bukatzeko nahia idatziz azaldu, eta hiru hilabetera bukatuko da indarraldia.

AUZIAK

Hitzarmen hau garatzean alderdien artean auziren bat sortuz gero, administrazioarekiko auzien jurisdikzio bidez ebatzi ahal izango da.

Eta bi erakundeen adostasunez sinatzen dute hitzarmen hau, ale bikoitzez, goian aipaturiko lekuan eta datan.

IZARO ELORZA ARREGUI
Oñatiko Udaleko Alkatea

ARITZ OTXANDIANO CAMPO
Gizabidea Fundazioako
Zuzendaria



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	D2030 hitzarmena
CSV/EKS:	SINAf9719cb9-a8a0-4a66-9284-6ce6ee3025ce